Afirma el señor Alcalde que cualquier colectivo o entidad a la que se le da una subvención tiene que justificarla con un informe técnico que así lo avale, y que no se abona la subvención sin el informe técnico que justifique el desembolso de la cantidad establecida según el cumplimiento de los criterios establecidos en las bases, siendo ésta una labor técnica, pues la comisión asesora y la Junta de Gobierno lo que hacen es aprobar los informes técnicos.
En lo que se refiere al incremento de las partidas destinadas a subvenciones, prosigue, hay que recordar el compromiso que se adquirió de ir subiendo un 10% anual las subvenciones a los colectivos, ya que durante bastantes años las cantidades se congelaron como consecuencia de la crisis.

Gaineratu du kolektibo horiek guztiek ekarpen handia egiten diotela herriari, baina udalaren laguntzarik gabe askoz ere gehiago kostako litzaiekeela egiten duten ekarpena egitea.
Alkateak amaitu du esaten balioan jarri behar dela, halaber, Udalak ematen dien azpiegitura, hala nola Lantaldeak egiten dituen lan-orduak, argi-lotuneak,

Añade que todos estos colectivos aportan mucho a la ciudad, pero que sin la colaboración del ayuntamiento les costaría bastante más hacer la aportación que hacen.
Finaliza afirmando que también hay que poner en valor la infraestructura que les da el ayuntamiento, como las horas de trabajo que dedica la Brigada, los

etab, eta ondo baino hobeto ikusten dutela gainera hala egitea.

enganches de luz, etc., y que están encantadísimos de que así se haga.

Irizpena bozkatu eta onartu egin da emaitza honekin:

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak (9): Alkatea, Albistegui Zamacola, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Votos afirmativos (9): Alcalde, Albistegui Zamacola, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga e Iraola Iriondo (PSE-EE).

Ez dago ezezko botorik (0).

Votos negativos (0): ninguno.

Abstentzioak (11): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Abstenciones (11): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

<u>3.- Juan Luis Tueros Ormaetxea jaunak Eibarko 2018ko Aurrekontu Orokorraren kontra sartu duen alegazio-idatzia. Udal Aurrekontuaren behin betiko onarpena.</u>

<u>3.- Escrito de alegaciones presentado por D. Juan Luis Tueros Ormaetxea, referido al Presupuesto General de Eibar 2018. Aprobación definitiva del Presupuesto Municipal.</u>

Irizpen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

“Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeko zinegotziek aldez aurretik izan dute Juan Luis Tueros Ormaetxea

“Los Concejales miembros de la comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio han dispuesto

jaunak Eibarko 2018ko Aurrekontu Orokorraren aurka egindako idatzia, Eibarko 2018ko Aurrekontu Orokorraren kontrako alegazioak dakartzana, eta Kontu-hartzaile jaunaren txostena ere bai.

Gaiaren inguruan jardun dute eta txostenaren irizpideei eta gogoetei buruzko eztabaida egin da.

Aurkeztutako alegazioak aintzat ez hartzeko bozketa egin du Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak, eta emaitza honako hau izan da: aldeko 5 boto, Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga, Elena Ibáñez eta Jaime Lopez de Guereñu eta 3 abstentzio Gorka Errasti, Iñaki Penedo eta Mª Jesús Aguirre. Lan batzordeak hauxe proposatzen dio udalbatzarrari:

1.- Aintzat ez hartzea Juan Luis Tueros Ormaetxea jaunak aurkeztutako alegazioak, izan ere, alegaziook ez dira sartzen aurrekontuari erreklamazioak aurkezteko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauak 17.2 artikuluan jasotzen dituen arrazoien artean.

2.- Behin betiko onarpena ematea Eibarko Udalaren 2018ko Aurrekontu

con anterioridad del escrito presentado por D. Juan Luis Tueros Ormaetxea, referido a las alegaciones al Presupuesto General de Eibar 2018, así como el informe emitido por el Sr. Interventor

Se ha debatido sobre el tema y sobre los criterios y consideraciones recogidos en el precedente informe.

La Comisión de Cuentas, Hacienda y Patrimonio, somete a votación el desestimar las alegaciones presentadas, con el siguiente resultado 5 votos a favor: Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga, Elena Ibáñez y Jaime López de Guereñu 3 abstenciones Gorka Errasti, Iñaki Penedo y Mª Jesús Aguirre, propone al Pleno Municipal

1.- Desestimar las alegaciones presentadas por D. Juan Luis Tueros Ormaetxea, por considerar que las mismas no constituyen ninguno de los motivos recogidos por el artículo 17.2 de la Norma Foral 21/2003 Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, para presentar reclamaciones al presupuesto.

2.- Aprobar definitivamente el Presupuesto General del Ayuntamiento de Eibar para el ejercicio 2018, en los

Orokorrari, hasierako onespenean adierazitako era hartan.”

términos planteados en la aprobación inicial.”

Lehendabizi Lamarain andreak hartu du hitza. Adierazi du kontu-hartzailearen txostenak alegazioa ez dela bidezkoa esan arren, berak gai batzuk gogorarazi nahi dituela.

Interviene en primer lugar la señora Lamarain quien afirma que aun cuando el informe del señor Interventor indique que no procede la alegación, aprovechan la misma para recordar algunos temas.

Hasi da esanez ez dela ahaztu behar Txontaren oraingo egoeraren eragile nagusia Udala dela, gobernu-taldearen eskutik; eta egoera hori duela hamahiru urte hasi zela, eta ez daukala konpontzeko itxurarik.

Comienza diciendo que no hay que olvidar que el principal causante de la situación actual de Txonta es el ayuntamiento, en manos del equipo de gobierno, y que esta situación comenzó hace trece años, sin que parezca que se vaya a arreglar.

Orduko alkate sozialistak, jarraitu du, bozketa bat proposatu zuenean, auzotarrek eskatu zuten beren etorkizuna ziurtatzea, baina inor ez zen gauza izan horretaz hitz egiteko edo berme hori emateko, eta, horrekin batera, beste batzuk egoera baliatu zuten Txontan inbertsioak egiteko, nonbait, espekulatzeko ideiarekin.

Cuando el entonces alcalde socialista, continúa, propuso una votación, lo que los vecinos solicitaron fue que se les asegurase su futuro, pero nadie fue capaz de hablar de ello ni de dar esa garantía, y a la vez otros aprovecharon para realizar inversiones en Txonta con la idea, se supone, de especular.

Geroago, jarraitu du, denborarekin, eta atzera-aurrera asko izan ostean, auzokideen beldur edo errezelo hori baieztatu egin zen.

Luego, prosigue, con el tiempo, y con muchas idas y vueltas, ese temor o desconfianza de los vecinos se confirmó.

Jarraitu du esaten Udalak duela pare bat urte azterketa soziourbanistiko bat egin zuela oso argi laga zuena auzotarrek ezin zutela aurrera eraman orduko plangintza.

Continúa diciendo que hace un par de años el ayuntamiento hizo un análisis socio-urbanístico que dejó muy claro que los vecinos no podían llevar adelante la planificación de entonces.

Zoritxarrez, jarraitu du Lamarain andreak, Txontako egoera den

Por desgracia, prosigue, la situación de Txonta es la que es, pero

bezalakoa da; baina, zorionez, ezin izan zen egin Udalak nahi zuena, hori kaltegarria izango zatekeelako bizilagunentzat.

Geroago, auzitegiek planeamendua indargabetu zuten eta etxebizitzak ordenamenduz kanpo geratui ziren; horren ondorioz, auzokideek ezin izan zuten ez obrarik ez inbertsiorik egin, eta, hamahiru urte geroago, etxebizitza horietako batzuk oso egoera kaxkarrean daude, eta horrek esan nahi du auzolagun batzuen egoera ere kaxkarra dela.

Jarraitu du esaten ezen 2012an, denbora luzea igaro eta gero eta behin eta berriz eskatzen jardun ondoren, —ez Udalak ez Eusko Jaurlaritzak ez baitzuten inolako interesik—, EH Bilduk lortu zuela Txontako Mahaia sortzea, eta, kostata, martxan jartzea.

Txontako mahaiari esker, lortu zen akordio batera iristera eta aho batez onartu zen Plan Nagusiaren laugarren aldaketa.

Aldi batez, jarraitu du, Visesak auzokideekin lan egin zuen, eta, hain zuzen, Visesaren eta auzokideen arteko lana hasi eta Auzitegiaren sententzia etorri zen, Amenabarri arrazoi emanez; albiste txarra sententzia hori Txontako auzokideentzat, zeren badakigu horrekin oraingo egoera luzatu egingo dela.

Eta hara non, orain, hamahiru urte pasa eta gero, Txontako egoeraren erantzule

afortunadamente, no se pudo hacer lo que el ayuntamiento deseaba hacer, pues ello hubiera sido perjudicial para los vecinos.

Luego, continúa, los tribunales anularon el planeamiento y las viviendas quedaron fuera de ordenación, con la consecuencia de que los vecinos durante años no pueden realizar obras ni inversiones, y que después de trece años algunas de estas viviendas están en estado muy precario, lo cual significa que la situación de algunos vecinos también es precaria.

Prosigue su intervención diciendo que en el 2012, después de mucho tiempo y a base de insistir e insistir, pues ni el ayuntamiento ni el Gobierno Vasco tenían ningún interés, EH Bildu logró que se crease la Mesa de Txonta, cuya puesta en marcha también costó.

Gracias a la mesa de Txonta, continúa, se logró llegar a un acuerdo y por unanimidad se aprobó la cuarta modificación del Plan General.

Durante un tiempo, prosigue, Visesa trabajó con los vecinos, y justo cuando empieza este trabajo entre Visesa y los vecinos, vino la sentencia del Tribunal que dio la razón a Amenabar; sentencia que supone una nueva mala noticia para los vecinos de Txonta, pues ya se sabe que con esto se prolongará la situación actual.

Dice más adelante que resulta que ahora, después de trece años, el mayor

nagusienak iragartzen duen ezen Eusko Jaurlaritzak bi milioi eta hirurehun mila euro inbertituko dituela, diru publikoa, bestalde.

Eta hori guztia nahiko bitxia iruditzen zaie, jarraitu du Lamarain andreak; batetik, badirudielako “egiten duenak pagatzen duela” eta, bestetik, antza denez, diru hori Txontako auzoan esku-hartze pilotu batean erabiliko delako, “Horizon 2020” programa europarrean oinarritua; eta duela bi urte bere taldeak programa hori Txontara ekartzea proposatu zuenean erantzun zitzaien ezinezkoa zela; eta, hortaz, badirudi mirariak nork proposatu haren arabera agertzen direla; baina, dena den, albiste ona dela eta ea denen artean gai hori aurrera atera ahal den.

Jarraitu du esaten badakiela aldaketa ezin dela egun batetik bestera egin, eta horregatik EH Bilduk uste du Udalak bitarte horretan inbertsioak egin behar dituela Txontako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko edo, gutxienez, Udalaren esku dauden inbertsioak egin.

Gaineratu du inbertsio batzuk kalean egitekoak direla, zeren Txontako bizilagunek urteak baitaramatzate eskaerak egiten horretarako; ulertzeko eskaerak, bere ustez, eta ez du ulertzen zergatik dagoen halako inbertsio-

responsable de la situación de Txonta anuncia que el Gobierno Vasco va a invertir dos millones trescientos mil euros, dinero que por otra parte, es público.

Les parece esto bastante curioso, prosigue, por una parte porque parece que se cumple que “el que lo rompe, al final lo paga” y por otra porque parece que este dinero se va a emplear en hacer una actuación piloto en el barrio de Txonta basada en el programa europeo “Horizon 2020”, cuando hace dos años su grupo propuso traer ese programa para Txonta y se les contestó que era imposible, con lo que no sabe si los milagros aparecen dependiendo de quién los proponga; pero de todas formas, dice, es una buena noticia y a ver si entre todos se puede sacar este tema.

Continúa afirmando que ya sabe que la modificación no se puede hacer de un día para otro, y que por ello EH Bildu piensa que el ayuntamiento en el ínterin debe de efectuar inversiones para mejorar la calidad de vida de los vecinos de Txonta o por lo menos, las inversiones que estén de mano del ayuntamiento.

Añade que hay inversiones a hacer en la calle, pues los vecinos de Txonta llevan años haciendo peticiones en este sentido, peticiones que a su grupo le parecen normales y que siempre ha dicho que no entienden por qué se da

desoreka auzo batzuetako eta beste batzuetako kaleen artean; hortaz, eskatzen du hemendik aurrera inbertsioak irizpide objektiboekin egitea, eta Txontan inbertitzea.

Jarraitu du esaten inbertsioak beste modu batekoak izan daitezkeela; eta auzoaren zaharberritzea kulturaren eskutik ere etor daitekeela.

Inork ez zuenean horretan sinesten, jarraitu du, EH Bilduk Txonta Kulturalaren aldeko apustua egin zuen eta emaitzak onak dira; orain badirudi denek ondo ikusten dutela eta proiektuan sinesten dutela; baina, hala ere, ez du islarik aurrekontuan.

Gaineratu du bere taldeak proiektu honen aldeko apustua egiten duela uste duelako auzoa eraberritzea ekar dezakeela, auzoaren historia ezagutzera eman eta kohesionatu egiten duela, eta bizilagunen bizi-kalitatea hobetzen duela.

Esan du, halaber, EH Bilduren ustez akats bat izan dela ez sartzea Txonta Kulturalerako partidarik, baina jarraituko dutela eskatzen.

Azkenik, adierazi du, bere taldeak Txontako Mahaia aipatzen duen bakoitzean erantzuten zaio Mahaiak bete dituela bere helburuak, baina EH Bilduk uste du oraindik asko dagoela hitz egiteko Txontari buruz eta lekurik egokiena Txontako Mahaia dela, bertan biltzen baitira teknikariak, auzokideen ordezkariak eta udala eta Eusko

desequilibrio de inversiones entre las calles de unos barrios y otros, por lo que solicita que de aquí en adelante estas inversiones se hagan con criterios objetivos y que se invierta en Txonta.

Continúa diciendo que las inversiones pueden ser de diferente tipo; y que la rehabilitación del barrio también puede venir de mano de la cultura.

Cuando nadie creía en ello, prosigue, EH Bildu hizo la apuesta por Txonta Kultural y cuando los resultados son buenos, ahora resulta que todos lo valoran positivamente y creen en el proyecto; pero sin embargo, no tiene reflejo presupuestario.

Añade que su grupo apuesta por este proyecto porque considera que puede dar la rehabilitación del barrio, que puede dar a conocer la historia del barrio y que lo cohesiona y mejora la calidad de vida de los vecinos.

Dice así mismo que EH Bildu cree que es un error no introducir partida para Txonta Kultural, pero que seguirá insistiendo.

Por último, indica, cada vez que su grupo menciona a la Mesa de Txonta se le contesta que la Mesa ya ha cumplido sus objetivos, pero afirma que EH Bildu considera que todavía hay mucho de qué hablar acerca de Txonta y que el espacio adecuado es la Mesa de Txonta, pues reúne a los técnicos, los representantes de los vecinos y al

Jaurlaritza; ondorioz, berriz ere eskatzen du martxan jartzea.

ayuntamiento y Gobierno Vasco, por lo que insiste para que se ponga de nuevo en marcha.

Lamarain andreak amaitu du galdetuz ea noiz jarri behar den berriz ere abian Txontako Mahaia, eta zer egoeratan dagoen Eusko Jaurlaritzarekin sinatuko den hitzarmena.

Finaliza su intervención preguntando cuándo se va a poner de nuevo en marcha la Mesa de Txonta y en qué situación está el convenio que se firmará con el Gobierno Vasco.

Jarraian Mendicute jaunak hartu du hitza; esan du kronologia egiten denean oroimena selektiboa dela, eta Lamarain andreak esandakoa gezurtatu barik gogorarazi nahi du ezen hasiera batean PNVk, EArekin koalizioan zegoenean, defendatu egin zuela Txontako proiektua, eta proposatu zuen bizilagunak ados egonez gero auzoa eraistea eta berriz ere eraikitzea, % 40 gutxiago eraikitzea; baina hamabost urte geroago, egoera den bezalakoa da.

Interviene a continuación el señor Mendicute quien comienza diciendo que cuando se hace cronología la memoria es selectiva, y que sin rebatir lo dicho por la señora Lamarain desearía recordar que en un principio el PNV, cuando estaba en coalición con EA, defendió el proyecto de Txonta, y planteó que si los vecinos estuviesen de acuerdo se derribase el barrio y se volviese a edificar un 40% menos, pero que después de quince años, la situación es la que es.

Gaineratu du auzotarrei zerbait agintzen zaienean, jakin behar dela bideragarria denentz.

Añade que cuando se promete algo a los vecinos, hay que saber que es viable.

Jarraitu du esaten ez dela luzatuko Txontako historiari buruz, aurrekontuari egindako alegazio baten gainean ari baita bozka ematen, eta bere taldeak ez duela alegazio horren alde egingo, zeren bozkatzerakoan beti hartzen baititu kontuan txosten teknikoak, baina bai hartu beharko litzatekeela kontuan planteatzen duena.

Prosigue afirmando que no se va a extender en la historia de Txonta, pues se está votando sobre una alegación al presupuesto, y que su grupo no apoyará esta alegación pues a la hora de votar siempre tiene en cuenta los informes técnicos, pero que sí habría de tenerse en cuenta lo que plantea.

Jarraitu du esaten ezen Eusko Legebiltzarrean alderdi Popularrak galdera bat egin zionean Eusko Jaurlaritzari, Etxebizitza kontseilariak hiru ardatz aipatu zituela kontuan hartu beharrekoak Txontako etorkizuna definitzeko orduan; eta ardatz horietako bat Txontan bizi diren pertsonen parte-hartzea da; eta bere taldearen ustez ere partaidetza hori gabe ezin da Txontako etorkizuneko proiektua definitu; horregatik, auzokideak ordezkatzen dituzten elkarteetako baten alegazio hau, bere taldeak auzotarren parte hartzearen aldarrikapen gisa ulertzen du; eta, beraz, PNVk uste du alegazio honen edukia mahai gainean jarri behar dela, nahiz eta izapide honetan ezin onartu, txosten teknikoak dioenari jarraituta.

Aurreko bilkuran, jarraitu du, erantzunik eman ez zitzaionez, bere taldeak honako galdera hauek egiten ditu: zer egoeratan daude eraikinak zaharberritzeko diru-laguntzen oinarriak? Noiz hasi behar da hitz egiten Txonta auzoko planeamenduari buruz modu partekatuan udal talde guztiekin eta auzotarren elkarteekin? Eta zer egoeratan daude VISESArekin zegoen kontratuaren gerakinaren kargura egin daitezkeen proposamenak?

Gaineratu du Alkatea prest agertu zela Txonta Kulturalaren egitasmorako

Continúa en su intervención diciendo que cuando en el Parlamento Vasco el partido Popular planteó al Gobierno Vasco una pregunta, el Consejero de Vivienda mencionó tres ejes a tener en cuenta a la hora de definir el futuro de Txonta, y que uno de estos ejes es la participación de las personas que viven en Txonta; y que su grupo también piensa que sin esta participación no se puede definir el futuro proyecto de Txonta, por lo que esta alegación de una de las asociaciones que representan a los vecinos su grupo la interpreta como una reivindicación de la participación de los vecinos, y por lo que el PNV cree que el contenido de esta alegación hay que ponerlo encima de la mesa, aunque en este trámite no se pueda aprobar conforme a lo que indica el informe técnico.

Dado que en el anterior pleno, prosigue, no se dio contestación, plantea su grupo las siguientes preguntas: en qué situación están las bases para la concesión de ayudas para la rehabilitación de los edificios, cuándo se va a empezar a hablar del futuro planeamiento del barrio de Txonta de forma compartida por todos los grupos y las asociaciones de vecinos, y en qué situación se encuentran las propuestas a ejecutar con cargo al remanente del contrato con VISESA

Añade que también desean información de las contrataciones directas sobre las

kontratazio zuzen batzuk egiteko, eta horri buruzko informazioa nahi dute, eta Lamarain andrearen galdera beraren ildotik, ea noiz bildu behar den Txontako Mahaia, zeren uste baitute bildu beharra daukala planeamendu berria planteatzeko, eta, baita irailean oraindik erantzunik ez duten kontu batzuk sortu zirelako mahai horretan.

que el señor Alcalde mostró su disposición a efectuar para el proyecto de Txonta Kulturala y siguiendo la misma pregunta de la señora Lamarain, cuándo se va a reunir la Mesa de Txonta, pues consideran que se debe de reunir para plantear el nuevo planeamiento, y además porque en septiembre se plantearon en dicha mesa una serie de cuestiones que todavía están sin contestar.

Ondoren Aguirre andreak hartu du hitza, eta esan du Jaun Luis Tuerosek idatzi duen historia irakurrita —laburpen gisa balio izan diona, zeren urte horietan bera ez baitzegoen hemen—, ia konpromiso moral bat sortzen diola auzo horrekiko.

Eta kontua ez da kontu-hartzaileak aipatutako Foru Araua argia dela kreditua ez sartzeko arrazoiari dagokionez; izan ere, udal honen betebeharra da Txontarekiko kontsiderazio bat izatea, zeren eta ez baita normala hamahiru urte hauetan bizi behar izan duten historia.

Interviene a continuación la señora Aguirre quien afirma que leyendo la historia que Juan Luis Tueros ha redactado y que a ella le ha servido como resumen, pues en esos años no estaba aquí; le crea casi un compromiso moral con este vecindario.

Ya no se trata de que la Norma Foral mencionada por el Interventor, continúa, sea tan fuertemente clara para no incluir el crédito; sino que es una obligación exigible a este ayuntamiento el que tenga una cierta consideración con Txonta porque no es normal la historia que se les ha hecho vivir en estos trece años.

Jarraitu du esaten auzo honen aldeko jarrera bat hartu behar dela, oso lagata, eta abandonatuta baitago, eta aurrerapauso bat ematen saiatzen den bakoitzean, dena datorrela behera.

Prosigue afirmando que hay que tener un posicionamiento a favor de un barrio que está muy dejado, y muy abandonado, y que cada vez que se intenta dar un paso adelante, todo se viene abajo.

Adierazi du Txontako proiektu kulturala babesteko premia sentitzen duela, eraberritze eta txukuntzeko aukeragatik, eta Txonta barruan leku ez hain degradatua izateko ematen duen aukeragatik.

Amaitu du esanez Foru Araua halaxe izango dela, baina bere ustez, 17. artikuluaren b) atalak dioena, "Legezko manua edo legebidezko beste edozein titulu dela bide erakundeari eska dakizkiokeen betebeharrak betetzeko behar den kreditua alde batera uztea", berak hori itzultzen duela kreditutzat jotzea, alegia, Txontako auzoarekiko obligaziotzat hartzea.

Dice que siente la necesidad de apoyar el proyecto cultural de Txonta, en cuanto a la rehabilitación y adecentamiento, y de disponer dentro del conjunto de Txonta de un lugar que no esté tan degradado.

Finaliza afirmando que la Norma Foral es la que es, pero que piensa que la traducción en el punto b) del artículo 17 de "por omitir el crédito necesario para el cumplimiento de las obligaciones exigibles a la entidad" sería la de considerar como un crédito, como una obligación para con el barrio de Txonta.

Kontu-hartzaileak hartu du hitza eta esan du komentatu diola jada Aguirre andreari arau horrek dioena zehazki zera dela: bere gain hartuko direla legez hala ezarrita datozen obligazioak —nagusiki Tokio Araudiari buruzko Legeak jasotzen dituenak, hala nola estolderia, argiteria edo zoladura-lanak—; obligazio horiek beste lege-titulu batek jaso ditzake edo epaitegi batek ezarritakoak izan.

Interviene el señor Interventor para decir que ya ha comentado a la señora Aguirre que lo que dice este precepto en concreto es la asunción de obligaciones que vengan impuestas por precepto legal, básicamente las obligaciones que recoge la Ley del Régimen Local en cuanto a servicios como alcantarillado, alumbrado o pavimentado, recogida en cualquier otro título legítimo, o establecidas por un juzgado.

Gaineratu du ekarpen horiek egiteko unea izaten dela aurrekontua egiten den garaia, edo aurrekontu-ekitaldi bitartean aurrekontu-aldaketak proposatzea, baina ezin direla une honetan egin.

Añade que el momento de hacer estas aportaciones es cuando se está elaborando el presupuesto o, durante el ejercicio presupuestario mediante modificaciones presupuestarias, pero

que no se puede encajar en este momento.

Iraola jaunak hartu du hitza; esan du diru-laguntzak emateko oinarriei dagokienez, lantzen ari direla eta proposamen bat igorri zaiola Eusko Jaurlaritzari, eta eman duen erantzuna aztertzen ari direla; espero duela Aste Santu osterako bilera bat izatea Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin duda batzuk argitzeko.

Interviene el señor Iraola para decir que en cuanto a las bases para concesión de ayudas, se está trabajando en ellas y que se ha remitido una propuesta al Gobierno Vasco, el cual ya ha remitido una contestación que se está analizando y que espera que después de Semana Santa se mantenga una reunión con representantes del Gobierno Vasco para aclarar algunas dudas.

Eusko Jaurlaritzarekiko hitzarmenari dagokionez, jarraitu du, adierazi du dagoeneko hitzarmen bat prestatzen ari dela Txontako goialdea garatzeko, eta hori prest eduki orduko, batzordera eramango duela aztertu ahal izateko.

En cuanto al convenio con el Gobierno Vasco, prosigue, ya ha comentado que se está preparando un convenio para el desarrollo de la parte alta de Txonta y que en cuanto se disponga de él, lo elevará a la comisión para analizarlo.

Jarraitu du esaten planeamenduari buruz hauxe esan behar duela: joan den asteartean hirigintza-batzordean eman zen Txontako goialderako aurreikusita dagoen planeamenduaren berri, eta planeamendu hori zela Plan Nagusiaren laugarren aldaketarekin planteatzen zena, joan den uztailean Txontako Mahaian ikusi ziren aldaketekin; baina, logikoa denez, zelan Eusko Jaurlaritzak Hitzarmena lantzen ari den eta alde horretan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko asmoa duen, hitzarmena izenpetu arte ezin izango da behin

Continúa su intervención diciendo que sobre el planeamiento tiene que decir que el martes pasado se dio cuenta en la comisión de urbanismo del planeamiento previsto para la parte alta de Txonta, siendo este planeamiento el que se planteaba con la cuarta modificación del Plan General, con las modificaciones que se vieron en la Mesa de Txonta el pasado mes de julio, pero que lógicamente como el Gobierno Vasco está elaborando el Convenio y en esa parte tiene intención de edificar vivienda protegida, hasta que no se firme el convenio no se podrá tener un

betiko planeamendurik izan, gutxienez, maila orokorrean.

planeamiento definitivo, por lo menos a nivel general.

Behealderako, jarraitu du Iraola jaunak, eragile bat dago, proposamen bat duena mahai gainean, baina berak ez du horren berri emango uste duelako proposamen konfidentzial bat dela eta haren erantzunaren zain daudelako, baina operadore horrek baieztatzen duenean sartzen den ala ez, orduan definitu ahalko dela nola geratuko litzatekeen behealdea.

Para la zona baja, prosigue, hay un operador, el cual tiene una propuesta encima de la mesa, que no va a dar, porque entiende que es una propuesta confidencial y que está pendiente, pero en el momento en que ese operador dé la respuesta de si entra o no, se podrá dibujar cómo quedaría la parte baja.

Jarraitu du esaten Txonta auzoko proposamenei dagokienez, bi daudela mahai gainean; bata Solac eraikina olanekin estaltzea —horri buruz badago aurrekontu bat eta zain daude jabeak adostasuna emateko—, eta bestea igogailu bat Txonta kalea Galiza Pasealekuarekin lotzeko, zeinaren proiektua jada kontratatu baita.

Sigue diciendo que en lo que se refiere a las propuestas del barrio de Txonta, hay dos propuestas sobre la mesa, siendo una la cubrición con lonas del edificio Solac, -sobre la que ya hay un presupuesto y se está a la espera de que la propietaria dé su conformidad-, y la otra la instalación de un ascensor para unir la calle Txonta con el Paseo da Galiza, y sobre el que ya se ha contratado el proyecto.

Amaitu du esaten uste duela gaur-gaurkoz ezin dela Txontako Mahaia deitu, ez dagoelako jakinarazteko moduko edukirik, eta egokiena izango litzatekeela itxarotea diru-laguntzen oinarri behin betikoak izan arte, orduan azaltzeko zer obra lagunduko diren diruz eta baita haien zenbatekoak ere.

Finaliza afirmando que considera que a día de hoy no se puede convocar la Mesa de Txonta porque no hay contenido que trasladar, y que lo oportuno sería esperar a que se disponga de las bases definitivas de las ayudas, para poder explicar las obras que se subvencionarán y las cuantías.

Lamarain andreak galdetu du aukerarik egongo den diru-laguntzei buruzko

La señora Lamarain pregunta si habrá oportunidad de hacer propuestas sobre las bases antes de que sean definitivas.

proposamenak egiteko, behin betikoak izan aurretik.

Iraola jaunak azaldu du Eusko Jaurlaritzarekin behin adostu ondoren, epe bat egongo dela bidezko diren ekarpena egiteko.

Indica el señor Iraola que una vez que esté consensuado el contenido con el Gobierno Vasco, habrá un plazo para realizar las correspondientes aportaciones.

Berriz ere Mendicute jaunak hartu du hitza esanez Txontako Mahaiaren eginkizuna ez dela oniritzia ematea udal gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean adostutako planeamendu bati, baizik eta planeamendurako oinarriak ematea; eta bi kontzeptu desberdinetatik abiatzen dela. Izan ere, batetik, lan partekatu bat exijitzen da hirigintza-planeamendu adostu bat bideratu ahal izateko, non denak identifikatuta sentituko diren, eta, bestetik, planteatzen ari da akordio bat bilatzea Eusko Jaurlaritzarekin, huraxe baita bideragarritasun ekonomikoa ematen duena, baina kontuan hartu gabe bideragarritasun sozial eta politikoa.

Interviene de nuevo el señor Mendicute para decir que la función de la Mesa de Txonta no es dar el visto bueno a un planeamiento negociado entre el gobierno municipal y el Gobierno Vasco; sino que la función es dar las bases para un planeamiento, y que se parten de dos conceptuaciones diferentes, pues por un lado se reclama un trabajo compartido que posibilite el consenso de un planeamiento urbanístico en el que todos se sientan identificados, y por otro, se está planteando el buscar un acuerdo con el Gobierno Vasco que es el que da la viabilidad económica, pero sin tener en cuenta la viabilidad social y política.

Baldin eta abiapuntua bada taldeen, auzo-elkarteen eta gainerako jabeen partaidetza, hala nola aipatzen den eragilearena, denek jokatuko dute erantzukizunez eta kontuan hartu eragile bat dagoela dirua jartzen duena, Eusko Jaurlaritza alegia; baina bere

Si se parte, continúa, de una participación de los grupos, de las asociaciones vecinales, y del resto de propietarios, como el operador que se menciona, todos actuarán con responsabilidad teniendo en cuenta que hay un agente que es el que pone la

taldearen ustez, izugarrizko akatsa litzateke Eusko Jaurlaritzarekin adostutako hirigintza-planeamendu itxi bat planteatzea, eta besteek ondo edo gaizki iruditzen zaien esateko aukera baino ez izatea.

Jarraitu du esaten huts egindako eta gelditutako proiektu baten beste adibide bat dagoela, eta Errebal dela huraxe; orduan ere eztabaida publiko garrantzitsuak egon ziren, eta enpresa-egitasmo batek huts egin ondoren, partaidetza-prozesu bat jarri zen martxan, herritarrek eta EH Bilduk eskatua; eta, zoritxarrez proiektuak jarraitzen du gauzatu barik, baina erabateko adostasuna lortu zen Errebalen egin behar zenari buruz.

Kontuan hartuta Txonta askoz ere konplexuagoa dela, jarraitu du Mendicute jaunak, familien etxebizitzak eta jarduera ekonomikoak daudelako, uste du hala ere denek dutela erantzukizunez lan egiteko borondatea; eta oinarri horretatik abiatuta, idealena izango litzateke akordio hori plana egiten hasten direnetik bertatik bilatzea.

Berriz ere Iraola jaunak hartu du hitza esanez ezen argitu behar dela, auzoaren goialdeari dagokiolarik, lehengo egunean hirigintzako

financiación, y que es el Gobierno Vasco, pero les parece que sería un error garrafal plantear un planeamiento urbanístico ya cerrado con el Gobierno Vasco y que los demás solo puedan decir si les parece bien o les parece mal.

Prosigue afirmando que hay otro ejemplo de proyecto fallido que lamentablemente está enquistado y que es el proyecto de Errebal, sobre el que también hubo discusiones públicas importantes, y que después de fracasar un proyecto empresarial en el ámbito, se estableció un proceso de participación que había sido demandado por la ciudadanía y también por EH Bildu, que lamentablemente sigue sin ejecutarse pero que sí alcanzó un consenso pleno sobre lo que había que hacer en Errebal.

Entendiendo que Txonta es mucho más complejo, continúa, porque hay viviendas de familias y actividades económicas, cree que sin embargo todos tienen la voluntad de trabajar con la misma responsabilidad; y que partiendo de esa base lo ideal sería buscar ese consenso desde la fase de elaboración.

Interviene de nuevo el señor Iraola quien dice que hay que aclarar que en lo que respecta a la parte alta, el planeamiento que se expuso el otro día

batzordean azaldu zen planeamendua jada onartu eta eztabaidatu zen planeamendua dela, Plan Nagusiaren laugarren aldaketatik eratorritakoa baita; eta planeamendu horren aldaketa bakarrak direla bere garaian 11 eta 13 higiezinak sartzen zirela eta orain ez direla higiezin horiek sartzen, haien kokapenak ezinezko egiten baitu denboran irautea eta, hortaz, eraistea proposatzen da, eta 2 eta 15 higiezinak sartzea; hori guztia Txontako Mahaian azaldu zela uztailean eta, beraz, ez dakiela ea higiezin horiek sartu izanari heldu behar dion eztabaidak, zeren gainerako guztia, esan duen legez, laugarren aldaketaren edukia baita.

en la comisión de urbanismo es concretamente el planeamiento que ya se aprobó y que ya se debatió, ya que es el que deriva de la cuarta modificación del Plan General, y que las únicas modificaciones que hay de ese planeamiento es que en su momento estaban incluidos los inmuebles 11 y 13 y ahora no están incluidos, pues su situación hace inviable su perdurabilidad y por tanto se propone derribarlos, y la incorporación de los inmuebles 2 y 15, Que todo ello ya se expuso en la Mesa de Txonta del mes de julio y por tanto, no sabe si el debate tiene que ceñirse a la incorporación de estos inmuebles, pues ya ha dicho que lo demás es el contenido de la cuarta modificación.

Behealdea dela-eta, jarraitu du bere azalpenean, berriz ere azpimarratu nahi du gaur-gaurkoz planeamenduaren diseinua hasi berri dagoela eta ez dakiela eragilea sartuko den ala ez; eta gaia aurreratuago dagoenean, gutxienez, partekatzeko moduko zerbaitekin, jakitera emango duela, ez baitago ezer ezkutatzekorik.

En lo que respecta a la parte baja, prosigue en su explicación, insiste en que a día de hoy el diseño de su planeamiento está incipiente y sin que se sepa si el operador va a entrar o no, y cuando el tema esté algo más avanzado, por lo menos con algo que se pueda compartir, se dará a conocer, ya que no existe ningún secretismo.

Azkenik, irizpena bozkatu eta onartu egin da emaitza honekin:

Finalmente, sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak (14): Alkatea, Albistegui Zamacola, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz

Votos afirmativos (14): Alcalde, Albistegui Zamacola, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz

de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Ez dago ezezko botorik (0).

Abstentzioak (6): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Aguirre Unceta (IRABAZI).

4. ATALA Premiak.

Idazkariak dio ez dagoela inongo gai juridiko-administratiborik urgentzien atalean.

5. ATALA.

Eibarko Partidu Popularrak aurkeztutako mozioa tamaina handiko hondakinen kontrolari eta bilketari buruz.

Mozio hau irakurri da:

"ZIOEN AZALPENA

Gure kaleetan, sarritan ikusten dira tamaina handiko hondakinak zabor-edukiontzien inguruan. Herritar batzuek,

de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga e Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Votos negativos (0): ninguno.

Abstenciones (6): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Aguirre Unceta (IRABAZI).

PUNTO 4º Urgencias.

La Secretaria indica que no hay ningún asunto jurídico-administrativo para ser tratado como urgencia.

PUNTO 5º

Moción presentada por el Partido Popular de Eibar relativa al control y recogida de residuos voluminosos en nuestra ciudad.

Se da lectura a la siguiente Moción:

"EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Con relativa frecuencia se puede ver en nuestras calles residuos voluminosos depositados en los alrededores de los

antza denez, orduari erreparatu gabe, hondakin horiek bota eta hondakinen edukiontzien ondoan lagatzen dituzte, garbiketa-zerbitzuek erretira ditzaten.

contenedores de basura. Algunos ciudadanos, al parecer, deciden desprenderse de ellos cuando ya no los necesitan, sin importar la hora del día, y los depositan junto a los contenedores de residuos esperando –suponemos- que los servicios de limpieza se encarguen de su retirada.

Era guztietako objektuak topa ditzakegu: koltxoiak, somierrak, altzariak, etxetresna elektrikoak, etab. Objektu horiek, beren tamainagatik, ezin dira laga bide publikoko edukiontzietan; hortaz, jakin gabe edo nahita, herritar horiek molestiak eragiten dizkiete auzotarrei eta komertzioei, oinezkoak ibiltzea oztopatzen baitute, eta gure herriaren irudia kaltetu.

Así, podemos encontrar todo tipo de objetos como colchones, somieres, muebles, electrodomésticos, etc. Estos voluminosos, por sus características, no pueden depositarse en ninguno de los contenedores dispuestos para la recogida de residuos en vía pública, y bien por desconocimiento o bien con plena conciencia, estos ciudadanos provocan con su actitud molestias al vecindario y a los comercios, impidiendo el paso a los peatones y afeando la imagen de nuestra ciudad.

Eibarko Udalak zein Debabarreneko Mankomunitateak badituzte informazio-bideak tamaina handiko hondakinen inguruko zalantzarik izanez gero argitzeko. PEGORAra joan daitezke edo Mankomunitatearen egoitzara; telefonoz egin daitezke kontsultak edo webgune eta sare sozialen bidez.

Tanto el Ayuntamiento de Eibar como la Mancomunidad de Debabarrena, disponen de canales de información a los que los ciudadanos pueden acudir en caso de tener alguna duda sobre el depósito de residuos voluminosos. Pueden acudir a PEGORA o a la sede de la Mancomunidad; pueden hacer sus consultas por teléfono a cualquiera de las dos entidades, o bien en sus páginas web o en sus redes sociales.

Ba omen dira, beraz, behar besteko erramintak herritarrek jakin dezaten zer egin bota nahi dituzten tamaina handiko hondakinekin; baina besterik da

Parece, por tanto, que existen herramientas suficientes para que los ciudadanos sepan qué hacer con aquellos voluminosos de los que

errealitatea, eta hasieran deskribatu ditugun bezalako eszenak —eta denok ikusi ditugunak— behin eta berriz errepikatzen dira nahi baino gehiagotan.

quieran desprenderse, pero está claro que la realidad es otra y que escenas como las descritas al comienzo –y que todos hemos visto- siguen repitiéndose con demasiada frecuencia.

Esaterako, “http//debabarrena.eus” webguneak informazio ugari ematen du, eta tamaina handiko hondakinen atalean, zehazten du zer zerbitzu eskaintzen duten hondakin horiek bide publikotik jasotzeko, eta asteko zer egunetan jasotzen diren, herriaren arabera.

La web https://debabarrena.eus, por ejemplo, facilita una gran cantidad de información, con un apartado específico dedicado a los residuos voluminosos, en el que se detallan muchas cuestiones, entre otras la relativa al servicio que ofrece para la recogida de estos residuos en vía pública, y los días a la semana en que se lleva a cabo, en función del municipio.

Azaldutako egoera ikusita, tamaina handiko hondakinak berreskuratzeko pausoak ematen jarraitzeko, eta herritar batzuen ohiturak eta jokaerak hobetzeko asmoz, Eibarko Partidu Popularrak honako MOZIO hau eztabaidatzea eta onartzea eskatzen du:

A la vista de la situación descrita, y en aras de seguir dando pasos para favorecer la recuperación de residuos voluminosos y una mejora en los hábitos y en el comportamiento por parte de algunos ciudadanos, desde el Partido Popular de Éibar, solicitamos que el Pleno del Ayuntamiento tenga a bien debatir y aprobar la siguiente Moción:

1. Eibarko Udalbatzarrak Debabarreneko Mankomunitatea hertsatzen du, hondakinak jasotzeko lekuetan, informazio-sistemaren bat jartzera tamaina handiko hondakinak lagatzeko egunei eta ordutegiei buruz; horretaz gain, telefonoak edo harremanetarako moduak eta herritarrek eska lezaketen gainerako informazioa ere eskuragarri jartzera, sor daitezkeen zalantzak argitzeko,

1. El Pleno del Ayuntamiento de Eibar insta a la Mancomunidad de Debabarrena a que, en las zonas de recogida de residuos, se ponga algún sistema de información sobre los días y horarios en los que se pueden depositar residuos voluminosos –para su posterior recogida-, y además de teléfonos o vías de contacto para resolver las dudas que se puedan plantear, y otra información de utilidad

helburua izanik herritarrek zerbitzuaren baldintzak izatea.

2. Eibarko Udalbatzarrak alkatea eta Gobernu Taldea hertsatzen ditu, udal agintariek egiten duten kontrola indartzera, bide publikoan lagatzen diren tamaina handiko hondakinen inguruan.

para la ciudadanía, con objeto de que los ciudadanos tengan conocimiento de las condiciones del servicios.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Eibar insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que refuercen el control que las autoridades municipales llevan a cabo en relación al depósito de residuos voluminosos en vía pública."

Lehendabizi, Ibañez andreak hartu du hitza esanez bere taldeak Eibar garbiago bat nahi duela eta uste dutela egiten dena baino gehiago egin daitekeela.

2018an, jarraitu du, kale-garbiketari dagokion partida 1.441.000 eurokoa da; diru-kopuru horretatik 1.376.000 euro Mankomunitaterako dira, eta 65.733 euro fatxadak garbitzeko, irristatzearen aurkako tratamenduetarako, txakurren kakak jasotzeko poltsetarako, grafitien garbiketa eta hidrogarbitzailerako. Kopuru handiak dira eta aurten Mankomunitateari egindako ekarpena 20.000 eurotan gehitu da, nahiz eta esan beharra daukan kalean ez dela aurrekontu igoera hori antzematen.

Edozein modutan ere, hori guztia Gipuzkoan zaborrekin egon den historiaren emaitza da eta azkenean denak ordaintzen ari dira.

Gaineratu du denek espero dutela ez aurkitzea zaborrik kalean, ez txiklerik

Interviene en primer lugar la señora Ibañez quien afirma que su grupo desea un Eibar más limpio y que consideran que se puede hacer más de lo que se hace.

En el año 2018, continúa, la partida correspondiente a limpieza viaria asciende a 1.441.000 euros, de los que 1.376.000 se destinan a la Mancomunidad y 65.733 euros para limpieza de fachadas, tratamientos antideslizantes, bolsas de heces de perros, limpieza de grafitis y la hidrolimpiadora, siendo éstas unas cantidades importantes y habiéndose aumentado este año 20.000 euros la portación a la Mancomunidad, aunque tiene que decir que en la calle no se refleja ese aumento de presupuesto.

En cualquier caso, prosigue, todos esto es el resultado de una historia que ha habido en Gipuzkoa con las basuras y que al final, la están pagando todos.

Añade que todos esperan no encontrarse basura en la calle ni chicles

espaloietan, edo pintaketarik hormetan, eta, hortaz, bere taldeak ere partekatzen duela Partidu Popularrak mozio honetan erakusten duen kezka, baina balorazio bat egin nahi dute mozioak planteatzen duenaz haratago.

Mankomunitatearen webgunea aztertuz gero, entitate horixe baita tamaina handiko tresnak jasotzen dituena, traste zaharrak jasotzeko atalean, oso garbi azaltzen da non lagatzen diren, zer laga daitekeen, zein den prozedura, jasotzeko egunak, nola garraiatzen den eta bilketa horrek ingurumenari zer onura eragiten dizkion; baina berriz ere esan beharra dauka Eibar garbiago egon daitekeela, garbitasuna da-eta herri baten aurkezpen-gutuna, eta gauza batzuetarako primerako herri bat izan nahi bada, garbitasuna ere primerakoa izan beharko da.

Aurrerago dio herritarrak sentsazioa duela asko ordaintzen duela jasotzen duen gutxi horren truke, eta egin behar dena dela jendeari gehiago entzun, badirelako leku batzuk hobetu daitezkeenak garbitasunari dagokionez.

Gaineratu du bere taldea konprometituta dagoela Eibar garbiago bat edukitzearekin eta jokabide zibikoa oso elementu garrantzitsua dela garbitasunaren gaian, guztiek egin behar dutelako lan norabide berean, eta

en las aceras, o pintadas en las paredes, y que por tanto, comparten la preocupación que muestra el partido Popular en esta moción, aunque desean hacer una valoración que va más allá de lo que plantea la moción.

Si se analiza al web de la Mancomunidad, prosigue, en el apartado de recogida de trastos viejos, que es el destinado a recoger enseres voluminosos, aparece claramente dónde se pueden depositar, qué es lo que se puede depositar, cuál es el procedimiento, los días de recogida, cómo se transporta y los beneficios medioambientales que suponen dicha recogida; pero insiste en que Eibar puede estar más limpio, siendo la limpieza la carta de presentación de una ciudad, y que si se desea ser ciudad de primera para algunas cosas, la limpieza también tendrá que ser de primera.

Dice más adelante que el ciudadano tiene la sensación de que paga mucho para lo poco que recibe, y que lo que hay que hacer es escuchar más a la gente, pues lo cierto es que hay zonas que pueden ser mejoradas en cuanto a limpieza.

Añade que su grupo se compromete a tener un Eibar más limpio y que el comportamiento cívico es un elemento importante en el tema de la limpieza, pues todos y todas tienen que remar en la misma dirección, y que por ello a las

horregatik erakundeei dagokie behar den informazio guztia ematea, kontzientziazio-kanpainak egitea eta kaleak txukun izatea.
Amaitu du esanez bere taldeak mozioaren aldeko botoa emango duela.

instituciones les corresponde aportar toda la información necesaria, realizar campañas de concienciación y tener las calles impolutas.
Finaliza afirmando que su grupo votará a favor de la moción.

Agirre andreak hartu du hitza ondoren; adierazi du ados dagoela mozioarekin, baina uste du bigarren puntuko kontrolaren gaiari zehapenak gehitu beharko litzaizkiokeela, zeren eta poltsikoari eragiten ez dion bitartean gauzak ez baitira zaintzen, eta poliziak irmoago jokatu beharko luke ondo egiten ez den guztiaren kontra.

Interviene a continuación la señora Aguirre quien afirma que está de acuerdo con esta moción, pero que cree que al tema del control del segundo punto, habría que añadirle las sanciones, porque mientras no toca al bolsillo, las cosas no se cuidan, y la policía tendría que actuar mucho más firmemente contra todo lo que no se hace bien.

Gaineratu du gaur bertan ikusi duela San Juan kaleko lurrazpiko edukiontzietan zabor guztia zegoela kanpoan eta zaborren altuera edukiontziena baino handiagoa zela.
Zehapenik ez badago, jarraitu du, ez dago zuzenketarik, eta, hortaz, leku eta ordutegiak adierazteaz gain, zehapen-sistema bat egon behar da jendeak gai hau gehiago zaintzeko.

Añade que hoy mismo ha visto que en los contenedores soterrados de la calle San Juan, toda la basura estaba fuera y que la altura de las basuras superaba la de los contenedores.
Si no hay sanción, continúa, no hay corrección, y por tanto, además de la indicación de los lugares, o los horarios, tiene que haber un sistema de sanciones para que la gente cuide mucho más este tema.

Uste du askok ez dutela edukiontzi grisaren txartelik, eta horregatik zaborra edukiontzietatik kanpo lagatzen dutela, eta, gainera, edukiontzi horiek oso aho txikia dutela eta batzuetan ez direla zaborrak sartzen. Amaitu de esaten garbiketaren alde eta herritarrei

Añade que cree que muchos no tienen la tarjeta del contenedor gris, por lo que colocan la basura fuera de los contenedores, y que además estos contenedores tienen la boca muy pequeña y a veces no entran las basuras. Finaliza afirmando que va a

informazioa errazteko egiten den guztia babestuko duela, eta baita Eibar garbiago bat izaten laguntzen duen guztia.

apoyar todo lo que sea a favor de la limpieza y de facilitar información a la ciudadanía y que le parece que hay que extremar todo lo que ayude a conseguir un Eibar más limpio.

Alkate jaunak dio bere taldeak mozioaren alde egingo duela, uste dutelako informazioa zabaltzeko egiten den guztia ona dela, baina uste duela kontzeptu batzuk nahasten ari direla.

El señor Alcalde afirma que su grupo va a votar a favor de la moción porque cree que todo lo que sea fomentar la información es para mejor, pero que cree que se están mezclando algunos conceptos.

Tamaina handiko bilketa, jarraitu du, astelehenetan egiten da Mankomunitateari deitu eta gero, eta doaneko zerbitzua da, nahiz eta ulertu ahal den prezioa jada ordaintzen dela zaborraren tasarekin.

La recogida de voluminosos, continúa, se realiza los lunes previa llamada a la Mancomunidad, y es un servicio gratuito, aunque se puede entender que el precio ya se paga con la tasa de basura.

Jarraitu du esaten Ibañez andreak aipatu dituen 1.300.000 euro horiek kale-garbiketari dagozkiola eta herritarrek ez dutela ordaintzen kale-garbiketagatik, hortaz, ez du lotura zuzenik ikusten 1.300.000 euro horien eta tamaina handiko bilketaren hobekuntzaren artean; eta, bestetik, % 1,5en igoera nagusiki % 1,5eko soldata-igoeragatik izan da.

Amaitzeko, gardentasunari begira ona litzateke, eta partidu Jeltzaleak horretarako konpromisoa hartzen du, zer eta udal honetan erantzukizunak izanez gero, webgunean zerrenda bat egiteko erakundearen propaganda-gastuekin eta haien zertarakoekin.

Finaliza afirmando que, en ejercicio de la transparencia sería bueno, y el partido Nacionalista se compromete a que, en el caso de que asuma responsabilidades en este ayuntamiento, en la propia web hacer un listado de cuáles son los gastos de propaganda que hace la institución y para qué.

Jarraian alkate jaunak hartu du hitza; esan du ez zuela pentsatuta ezta eztabaidan parte hartzea ere, erabat demagogikoa delako eta gainera bere taldeak ez duela bozkatuko, nahiz eta abstentzio moduan kontabilizatu.

Gaineratu du esaera hau aplikatuko lukeela, “kontseju onak besteentzako, eta norberarentzako ez", eta estrategia hori hiru hiriburuetan aplikatu daitekeela, eta baita EH Bilduk gobernatzen duen udal jakin batzuetan ere.

Donostian, jarraitu du, 85.000 propaganda-dokumentu igorri dira etxeetara, Donostiako alkateak sinatuak, eta berak galdetzen du ea norbaitek uste duen hori Bildurekin edo PPrekin adostu duen, zeren garbi baitago ez dela egin; eta bere ustez, erabat zilegi da Donostiako udal gobernu-taldearen komunikazio-estrategia hori.

Jarraitu du esaten otsailaren 24an gehigarri bat argitaratu zela Diario Vascon, non parte hartu zuen interesgarria irizten ziolako, eta, halaber, parte hartu zutela Eneko Etxeberriak, EH Bildukoa, PNVko alkate andreek, zinegotzi sozialistek eta Diputatu Nagusiak, eta galdetzen du ea norbaitek uste duen bakoitzak bere udalean adostu zituela besteekin zer galdera egingo ziren; izan ere, Diputazioaren gobernu-taldeak egingo baitzuen hori, eta baita udaletako

Interviene a continuación el señor Alcalde quien afirma que pensaba ni participar en el debate, porque es totalmente demagógico, y que además su grupo va a abstenerse de votar, aunque se contabilice como abstención.

Añade que aplicaría el refrán “consejos vendo, que para mí no tengo”, y que esta estrategia hay posibilidad de aplicarla en las tres capitales, y en determinados ayuntamientos en los que gobierna EH Bildu.

En Donostia, continúa, se ha remitido a los domicilios 85.000 documentos de propaganda firmados por el Alcalde de Donostia, y pregunta si alguien cree que esto se ha consensuado con Bildu o con el PP, porque evidentemente que no; esta es una estrategia de comunicación legítima del equipo de gobierno del ayuntamiento de Donostia.

Prosigue diciendo que el 24 de febrero se publicó en el Diario Vasco un suplemento en el cual participó porque le parecía interesante, y que también participaron Eneko Etxeberria de EH Bildu, alcaldesas del PNV, Diputados socialistas y el Diputado General, y que pregunta si alguien cree que cada uno en su ayuntamiento estableció con los demás las preguntas que se le iban a hacer, porque lo habrá hecho el equipo de gobierno de la Diputación, y el equipo de gobierno de los

gobernu-taldeek ere, eta, logikoa denez, idatziz eta paperean: fakturarekin eta Ogasun Batzordean.

Gehiago eta gutxiago gustatuko zaigu, dio alkateak, baina gobernu-taldeak dira erakundearen komunikazio-erantzukizunak dituztenak, eta partidu Sozialistak komunikazio propioa izan nahi duenean, ordaindu egiten du; eta udal honetan izan dira PNVko, PPko edo EAko zinegotziak, gobernu-taldean egon direnean, beren arloetarako publizitate-gastuak egiten dituztenak.

Marca Irratian egindako elkarrizketa, jarraitu du, haiek ezarritako formula baten bidez egin zen, eta nahiz eta jada ez ordaindu, jarraitzen da egiten interesgarria irizten zaiolako, eta nahiz eta garapen ekonomikoko zinegotziaren elkarrizketa kendu, jarraituko da bultzatzen arloaren gaineko informazioa, zeren eta helburua baita gizarteari helaraztea udalak egiten dituen proiektu, ekimen eta kanpainei buruzko informazioa, eta ahal dela bertako komunikabideetan.

Amaitu du esanez ondo irizten diola Eibarren gauzak nola egin behar diren jakiteko oasi bat egin nahi izateari, baina ariketa bera egin beharko litzatekeela gobernatzen den lekuan, eta ez hona etorri esatera zer egin behar

ayuntamientos, y lógicamente negro sobre blanco: con factura y en la Comisión de Hacienda.

Puede gustar o no, prosigue, pero son los equipos de gobierno los que tienen las responsabilidades de comunicación de la institución, y cuando el partido Socialista quiere tener una comunicación propia, la paga; y en este ayuntamiento ha habido concejales del PNV, del PP o de EA que cuando estaban en el equipo de gobierno hacían gastos de publicidad para sus áreas.

La entrevista que hizo en Radio Marca, continúa, se hizo según fórmula establecida por ellos, y aunque ya no se paga, se sigue haciendo porque se considera interesante, y aunque se suprima la entrevista al concejal de desarrollo económico, se seguirá fomentando la información del área porque el objetivo es trasladar a la sociedad la información sobre proyectos, iniciativas y campañas que desarrolla el ayuntamiento, y tratar de hacer lo máximo posible en los medios locales.

Finaliza afirmando que le parece muy bien que en Eibar se quiera crear un oasis de cómo hacer las cosas pero que hacer un ejercicio en donde se gobierna tampoco vendría mal, y no venir aquí a decir lo que hay que hacer, mientras que donde se gobierna no se hace.

den, eta, aitzitik, gobernatzen den lekuan, beste gauza bat egin.

Mendicute jaunak adierazi du aipatu den Eneko Goiaren bandoa hauteskundeetako konpromiso bat izan zela, eta alkateak ordaindutako elkarrizketak ez zirela hauteskundeetako konpromisoa.

Zer tristea eta argumentu urrikoa den haizegailuarekin etorri behar izatea besteak zipriztintzeko, eta horixe izatea argudio bakarra, eta ez herritarrei informazioa helaraztearena!, jarraitu du esaten.

Gaineratu du eztabaidatzen dena dela ea diru publikoa erabiltzen den informazio publikorako, edo politikariaren luzimendurako.

Bere ustez, talde guztiak ados egongo dira herriko komunikabideei lagundu behar zaiela esatean, baina ez du balio haizegailuarekin etortzea beste erakunde batzuetan egiten diren gauzak zipriztintzera, aurrera eramaten ari diren jarduerak defendatzeko inolako argudiorik izan gabe, eta ahaztu gabe, bere taldeak ez dituela jarduera horiek baloratu; bere taldeak eskatu duena izan da irizpide batzuk ezartzea diru publikoa gastatzeko.

Aurrerago dio alderdi Jeltzaleko ordezkari bakar batek ere ez duela

Interviene de nuevo el señor Mendicute quien afirma que el bando de Eneko Goia que se ha mencionado fue en cumplimiento de un compromiso electoral y que las entrevistas que ha pagado el señor Alcalde no eran un compromiso electoral.

¡Qué triste es y qué falta de argumentación el tener que venir con el ventilador para salpicar a los demás, y que sea éste el único argumento, no el de velar por trasladar a la ciudadanía cierta información!, prosigue diciendo.

Añade que lo que se debate es si el dinero público se utiliza para información pública, o para lucimiento del político de turno.

Cree, continua, que todos los grupos estarán de acuerdo en que hay que ayudar a los medios de comunicación de la ciudad, pero lo que no vale es venir con el ventilador para salpicar a todos con las cosas que se hacen en otras instituciones, sin tener ningún otro argumento para defender las practicas que se están llevando a cabo, y sin olvidar que su grupo no ha entrado a valorar estas prácticas; sino que tan sólo ha solicitado establecer criterios para gastar el dinero público.

Dice más adelante que lo que no hace ningún representante del partido

zehazten noiz den nazionalista eta noiz den sozialista webgune instituzional batean, eibar.eus webgune instituzionalean, udaleko albisteekin egiten ari diren legez, eta, hala azaltzen dira “garapenaren zinegotzi sozialistaren”, “gizartekintza arloko zinegotzi sozialista"; baina albiste txar bat eman behar denean, edo gobernuaren gaineko ñabarduraren bat egin, zera aipatzen da, Eusko Alderdi Jeltzaleak kudeatutako departamenduak, Kontseilari jeltzalea, etab.
Esaten ari dena da Eibarko udala eta Eibarko herria ez dela bakarrik partidu Sozialista, baizik eta denak daudela hemen, eta alkateak ez badu egin nahi ez duela egingo; baina Udalbatzarreko gehiengoaren gaitzespena izango duela.

Nacionalista es que en una web institucional como es eibar.eus especificar cuándo se es nacionalista y cuándo se es socialista, tal como se viene haciendo en las noticias institucionales del ayuntamiento, y así “el concejal socialista de desarrollo”, “la concejala socialista del área de servicios sociales”, pero que cuando toca dar una noticia mala o hay que matizar algo del gobierno se habla de departamentos gestionados por el Partido Nacionalista Vasco, la Consejera jeltzale, etc.
Lo que está diciendo, concluye, es que el ayuntamiento de Eibar y el pueblo de Eibar no es sólo el partido Socialista, sino que están todos aquí, y si el Alcalde no lo quiere hacer, no lo hará; pero tendrá la reprobación del pleno por mayoría.

Alkate jaunak dio ez diola ondo ulertu Mendikute jaunari, eta ez dagoela kargu publiko jeltzalerik, komunikabide batean kargu publiko gisa jokatzen duenean, jeltzale dela ez dionik.

Afirma el señor Alcalde que no ha entendido bien al señor Mendicute, y en concreto, que no hay cargo público nacionalista que no lo diga cuando actúa de cargo público en un medio de comunicación.

Mendicute jaunak adierazi du webgune instituzionalei buruz ari dela.

Indica el señor Mendicute que se refiere a las páginas webs institucionales.

Alkate jaunak galdetzen du ea Gasteizko alkateak ez ote duen inoiz jartzen alkate jeltzalea webgunean.

Dice el señor Alcalde que se pregunta si el Alcalde de Vitoria no pone nunca el Alcalde nacionalista en la página web.

Mendicute jaunak esan du Eusko Alderdi Jeltzaleak oso argi bereizten duela noiz ari den egiten informazio instituzionala, eta noiz partiduaren informazioa; badirudi Partidu Sozialista ez dela hori egiteko gai izan.

Afirma el señor Mendicute que el Partido Nacionalista Vasco distingue con mucha claridad cuándo está haciendo información institucional, y cuándo está haciendo información de partido, cosa que parece que el Partido Socialista no ha sido capaz.

Alkate jaunak hartu du hitza berriro adieraziz eskatuko duela webgunearen estiloa aldatzeko, baina azpimarratu nahi du bilkura honetan talde politikoek eskatzen dutena ez dutela eskatzen gobernatzen duten tokian, eta hori nabarmentzea haizegailua jartzearekin alderatzen dela; eta berak esan duen bakarra izan dela bere taldeak eramango duela informazioaren kudeaketa, PNVk Eibarko gobernuan egon zenean egin zuen bezala.

Partida ekonomikoak igotzeari dagokionez, jarraitu du, ez du uste Errastik aipatutako igoerak gertatu direnik, partidaren bat desagertu egin delako, baina nabarmendu egin behar da publizitate-gastuak aurrekontu orokorrean duen pisua bost aldiz txikiagoa dela Bilboko udalak duena baino, eta ez duela uste Bilboko udalean talde guztien artean adosten denik kanpaina bat egin behar duenean.

El señor Alcalde interviene de nuevo para decir que ya indicará que cambien el estilo de la página web, pero que desea resaltar que vienen a este pleno grupos políticos para pedir algo que allá donde gobiernan no lo hacen y que resaltarlo se considera poner el ventilador, pues él lo único que ha dicho es que su grupo, al igual que el PNV cuando gobernó en Eibar, llevará la gestión de la información.

En cuanto al incremento de las partidas económicas, prosigue, no cree que haya habido los incrementos mencionados por el señor Errasti, ya que alguna partida ha desaparecido, pero es de resaltar que el peso del gasto de publicidad sobre el presupuesto general es cinco veces menor que el que tiene el ayuntamiento de Bilbao y le extraña que en el ayuntamiento de Bilbao se consensue entre todos los grupos cuando va a hacer una campaña.

Kanpaina, jarraitu du, gobernu-taldeak ezarriko du, baina horrek ez du esan nahi partidu horren propaganda denik, eta bera ez dela Partidu Sozialistaren alkatea, baizik eta eibartar guztien alkatea, eta komunikabideetara irteten denean alkate gisa erantzuten diela herritarren galderei.

La campaña, continua, la establecerá el equipo de gobierno, lo cual no quiere decir que sea propaganda de ese partido, y él no es el Alcalde del Partido Socialista, sino el Alcalde de todos los eibarreses e eibarresas, y cuando sale a los medios contesta como Alcalde a las preguntas de los ciudadanos.

Antza denez, transmititu nahi den ideia da bere taldea dela berezia eta hori ez dela haizegailuarekin ibiltzea; haizegailuarekin zipriztintzea izango litzateke arakatzen ibiltzea eta bi gertakari topatu eta erabiltzea; eta berak ez duela sartu nahi izan herri honetan gertatu diren gauzetan. Esaten bada beste guztien gauza txarrak jasotzen direla, jarraitu du, orduan galdetzen du ea onartzen den besteek era gaizki egin dutela, diputatu sozialistak, nazionalistak, eta baita Bildukoak ere, gobernuan egon ziren eta.

Añade que parece que se traslada que su grupo es el raro y que eso no es echar el ventilador, que sí lo sería el estar rebuscando y encontrar dos hechos y usarlos, y que no ha querido entrar en cosas que ha sucedido en este pueblo. Si se dice que se recoge lo malo de los demás, continúa, se pregunta si entonces se reconoce que los demás lo hacen mal, los diputados socialistas, nacionalistas, y también los del Bildu, ya que estuvieron en el gobierno.

Amaitzeko, berriz ere azpimarratu nahi du hala Bilbon, Donostian, Gasteizen, Elgoibarren, Azpeitian, Hernanin nola Eibarren, gobernuan daudenek ezartzen dituztela komunikazio-estrategiak.

Finaliza insistiendo en que tanto en Bilbao, Donostia, Vitoria, Elgoibar, Azpeitia, Hernani, y también en Eibar, los que gobiernan establecen las estrategias de comunicación.

Errasti jaunak hartu du hitza; eskatu dio Alkateari jartzeko bere taldearen lekuan, zeren hogeita bi batzorde daude, eta, bat-batean, hara non

El señor Errasti interviene para decir que solicita al Alcalde que se ponga en la situación de su grupo, pues hay veintidós comisiones, y de repente, se encuentran con la factura de inserción

publizitate-faktura bat topatzen duten, horri buruz ezer aipatu ez denean.

de publicidad en materia de desarrollo económico, cuando no se había comentado nada al respecto.

Aldez aurretik komentatuko balitz kanpaina bat egin behar dela, gaia beste era batera hartuko lukete, baina jokatzeko modu honek errezeloa eragiten du.

Si comentase previamente que se va a hacer una campaña, concluye, se tomarían el tema de otra manera, pero esta forma de actuar levanta suspicacias.

Berriz ere alkate jaunak hartu du hitza adieraziz urtarrilean ezartzen dela dagokion irratiarekin urteko plangintza publizitate eta propagandari dagokionez.

Gaineratu du Valentziaga Oroitzarrea aurkeztekoa zelarik, partidu bateko oso pertsona garrantzitsu baten bidez, Bizkaia aldeko irrati baten ordezkari bat etorri zitzaiola ikusteko ea publizitatea egiten zitzaion Oroitzarrerako eta Itzulirako; eta adierazi du halako gauzak adostu behar badira adostuko direla, baina bere ustez ez duela inork egiten.

El señor Alcalde interviene de nuevo para decir que en enero se establece la planificación del año con la emisora correspondiente en cuanto a publicidad y propaganda.

Añade que cuando se presentaba el Memorial Valenciaga le vino, a través de una persona muy importante de un partido, un representante de una emisora de radio de la zona de Bizkaia para ver si se le hacía publicidad para la Memorial y para la Itzulia y señala que si hay que consensuar esta cosas, se hará; pero que entiende que no lo hace nadie.

Mozioa bozkatu da eta emaitza honekin onartu da:

Sometida a votación la moción se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak (11): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez,

Votos afirmativos (11): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez,

Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Ez dago ezezko botorik (0).

Abstentzioak (9): Alkatea, Albistegui Zamacola, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

PSE-EEko zinegotziek bozkatze

8. ATALA.

Eibarko EAJ-PNV taldeak aurkeztu duen Mozioa landa-eremuko garraio publikoari buruz.

Idazkariak adierazi du martxoaren 16an aurkeztutako mozio bat dagoela, eta beste ordezko bat PSE-EE taldeak aurkeztua.

EAJ/PNV taldeak aurkeztutako mozioa irakurri du:

"Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako Mozio hau aurkezten du, Udalbatzaren Osoko Bilkurak eztabaidatu eta bozkatu dezan, landa-eremuko garraio publikoari buruz.

Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos negativos (0): ninguno.

Abstenciones (9): Alcalde, Albistegui Zamacola, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga e Iraola Iriondo (PSE-EE).

Los concejales del PSE-EE se abstienen de votar.

PUNTO 8º

Moción presentada por el grupo municipal EAJ-PNV Eibar sobre el servicio de transporte público en el ámbito rural.

Indica la Secretaria que hay una moción presentada el 16 de marzo, y otra moción alternativa presentada por el grupo PSE-EE.

Da lectura a la moción presentada por el grupo EAJ/PNV:

"El grupo municipal Eibarko EAJ-PNV presenta la siguiente Moción para su debate y votación en Pleno, sobre el servicio de transporte público en el ámbito rural.

ZIOA

Eibarko udalerriko biztale gehienak hirigunean bizi dira, eta ez dago populazio-pilaketa handirik urrun dauden inguruetan. Hala ere, 400 pertsona inguru (bereziki landa-eremuetakoak) garraio publikoaren eremutik kanpo daude.

Hainbat udalerritan eskariaren araberako garraio publikorako zerbitzuak abian jarri dituzte: ibilbidea egiten dute, aurretiaz pertsona bidaiariek egindako eskarien arabera. Normalean, pertsona horiek ez dute aukerarik izaten autoz edo beste modu batez bidaiatzeko. Sistema malgua da, eta eskariaren arabera egokitzen dena, bai ibilbideei dagokionez, bai ordutegiei dagokionez.

Nekazaritza eta abeltzantza jarduera mantentzeko eta garatzeko, beharrezkoa da konponbideak ematea sektorea osatzen duten pertsonek dituzten erronka berriei, besteak beste, landaguneak eta hiriguneak konektatzeko beharrei.

ZIOA

El grueso de la población en el municipio de Eibar se encuentra localizado en el centro del municipio, sin que haya acumulaciones de población de cierta entidad en zonas distantes. Aun así, cerca de 400 personas (fundamentalmente del entorno rural) se encuentran fuera de la cuenca del transporte público.

En numerosos municipios se han puesto en marcha servicios de transporte público a demanda, consistentes en líneas que realizan su recorrido en base a las solicitudes de personas viajeras hechas previamente. Habitualmente, se trata de personas sin posibilidad de desplazarse en automóvil u otro modo. Se trata de un sistema flexible y adaptado a la demanda tanto para recorridos como para horarios.

El mantenimiento y desarrollo de la actividad agroganadera requiere de soluciones a los nuevos retos a los que se enfrentan las personas que componen el sector, como las necesidades de comunicación existentes entre las zonas rurales y el núcleo urbano.

Beharrezkoa da alternatiba bat eskaintzea baserri auzoetan bizi diren pertsonei, ohiko garraio publikoko zerbitzua erabili ezin dezaketenei. Helburua da baserri auzoak eta hirigunea batzea, eta ondorioz, hirigunean eskaintzen diren zerbitzuetarako irisgarritasuna bermatzea; garraio publikorako alternatiba berri bat, landa eremuko auzotarren beharrei egokitutakoa.

Resulta necesario plantear una alternativa a las personas residentes en barrio rurales y que no pueden utilizar el servicio de transporte público regular, con el fin de unir los barrios rurales con el núcleo urbano y garantizarles así la accesibilidad a los servicios que se dispensan en el núcleo urbano; una alternativa de transporte público adaptada a las necesidades de las vecinos del entorno rural.

Erreferentzia diren hainbat esperientzia daude, non eskariaren araberako garraio publikoko eskaintzaren alde egin baituten, eredu direnak Eibarren ere antzeko ezaugarridun zerbitzu bat ezartzeko. Horregatik guztiagatik, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako akordio hau hartzea proposatzen dio Udaleko Osoko Bilkurari:

Existen diferentes experiencias de referencia en las que se ha apostado por una oferta de transporte público a demanda que sirven de ejemplo para la implantación de un servicio de similares características en Eibar. Por todo ello, el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV propone al Pleno Municipal la adopción del siguiente acuerdo:

AKORDIO PROPOSAMENA:

Eibarko Udal Batzarrak eskariaren araberako garraioa ezartzea proposatzen du, dagoeneko badagoen Taxibusari txertatuko zaiona, aurretiaz Andirao baserritarren elkartearekin proposamena landu ondoren. 400 pertsona inguru daude Eibarko udalerrian garraio publikoaren eremutik kanpo, eta horren bidez horiei zerbitzua emango zaie."

PROPUESTA DE ACUERDO:

El Pleno Municipal propone la adopción de un sistema de transporte a la demanda que se acople al existente de Taxibus, previo desarrollo conjunto de la propuesta junto con la asociación de baserritarras Andirao, de forma que dé servicio a las cerca de 400 personas que se encuentran en el municipio de Eibar fuera de la cuenca del transporte público."

Jarraian, PSE-EE taldeak aurkeztutako ordezko mozioa irakurri du:

"1.- Eibarko Udal Osoko bilkurak proposamen hau egiten du: gaur egun Udaletik egiten ari den prospekzio-lanaren ondorioak Andirao elkartearekin erkatzea, baserri-auzoetan bizi diren eibartarrei taxi-bus zerbitzua ematea beharrezkoa den jakiteko.

2.- Premia benetakoa dela ikusiz gero eta premia edo behar hori zenbatekoa den jakin ondoren, Udalak baserri-eremuan taxi-bus zerbitzua martxan jartzeko konpromisoa hartzen du; edozein modutan ere, gaur egun herriko taxi-busak duen defizitaren atalasea ez luke gainditu behar izango."

Lehendabizi, Mendicute jaunak hartu du hitza. Esan du aurkeztutako mozioaren justifikazioa bigarren paragrafoan jasotzen dela, hauxe dioenean: "eskariaren araberako garraio publikorako zerbitzuak abian jarri dituzte: ibilbidea egiten dute, aurretiaz pertsona bidaiariek egindako eskarien arabera".

Hori zehaztuta egonik, jarraitu du, kosta egiten da ulertzea zergatik zehaztu behar diren kontu batzuk eta kosta

Posteriormente da lectura a la moción alternativa presentada por el grupo PSE-EE:

"1.- El Pleno del Ayuntamiento de Eibar propone que se contrasten con Andirao las conclusiones de la prospección que actualmente se está realizando desde el ayuntamiento, con elobjetivo de determinar la pertinencia de prestar el servicio de Taxi-bus a la ciudadanía eibarresa residente en los barrios rurales.

2.- En el caso de concluirse que existe una necesidad real y una vez dimensionada ésta, el Ayuntamiento se compromete a poner en marcha el servicio de Taxi Bus en el ámbito rural, que en todo caso, no debería superar el umbral de déficit existente en el servicio actual de Taxi-Bus urbano."

Interviene en primer lugar el señor Mendicute quien afirma que la justificación de la moción presentada se recoge en el párrafo segundo cuando dice "de transporte público a demanda, consistentes en líneas que realizan su recorrido en base a las solicitudes de personas viajeras hechas previamente".

Estando esto especificado, continúa, cuesta entender la necesidad de especificar más algunas cuestiones y

egiten da ulertzea era horretako ezaugarriak dituen zerbitzu bat posible izatea Aian, Usurbilen, Arratiako bailaran edo Amorebieta-Etxanon, esaterako; eta bere taldeak proposatzen duena da antzeko sistema bat, aldez aurretik Andirao baserritarren elkartearekin batera aztertuta.

Jarraitu du esaten mozio hau aurkezten dutela, udalerrian laurehun pertsona daudelako garraio-zerbitzu publikotik kanpo, eta uste dutelako ezin dela egon lehen mailako eta bigarren mailako herritarrik, eta, baita ere, gutxieneko zerbitzu bat eskaini behar zaileko herritar guztiei, batez ere, kontuan izanik laurehun pertsona horietatik gehienak baserri auzoetan daudela.

Zenbaitetan, jarraitu du, batzuei ahoa betetzen zaie esanez garrantzitsua dela baserriari eustea, baina eutsi behar zaie ez bakarrik ohiturei eta tradizioei; baita atzean dagoen jarduera ekonomikoari, eta, gainera, jarduera horrek balio du mendiak mantentzeko, eta lotua dago elikaduraren autonomiarekin.

Gaineratu du udalerriak aztertzeke duela gai hau eta bere taldeak esan du, Plan Nagusia berrikusteko orduan, galdetu beharra dagoela ea zergatik beste udalerri batzuetan errazago aktibatzen den jarduera ekonomiko hau, eta ez bakarrik orografiagatik; badira

cuesta entender que un servicio de estas características ya sea posible en municipios como Aya, Usurbil, Valle de Arratia, o Amorebieta Etxano, y lo que su grupo propone es un sistema similar, analizando previamente el tema junto con la Asociación de baserritarras Andirao.

Continúa diciendo que presentan esta moción porque en el municipio hay cuatrocientas personas que están fuera del servicio público de transporte, y porque creen que hay que evitar que haya ciudadanos de primera y segunda y ofrecer un mínimo de servicio a todos los ciudadanos, sobre todo, teniendo en cuenta que la mayoría de estas cuatrocientas personas están en zona rural.

A veces, prosigue, a algunos se les llena la boca diciendo que es importante mantener el caserío, y que hay que mantenerlo no sólo en las costumbres y tradiciones; sino en la actividad económica que hay detrás, y que sirve además para mantener los montes, y que está relacionada con la autonomía en la alimentación.

Añade que creen que este es un tema que está pendiente de hacer por parte del municipio y que su grupo ya ha dicho que en el momento de revisar el Plan General hay que preguntarse por qué en otros municipios se activa con mayor facilidad esta actividad económica, y no sólo por la orografía;

beste kontu batzuk, hala nola ordenamendua.
Berriz ere adierazi du batzuei ahoa betetzen zaiela baserriari eutsi behar zaiola esanez, baina gero baserriko bizimodua oso nekeza dela, eta inbertsioak egin behar direla baserritarrek bizimodu duin bat izan dezaten, eta garraioaren esparruan ere inbertsioak egin behar direla.
Autorik ez duten baserritarrak, jarraitu du, egoera prekarioan daude ezin direlako herrira jaitsi, eta zerbitzuak herrian daude.

Esan du, halaber, udalak erantzukizuna duela honetan, eta bere taldeak planteatzen duela taxi-busaren zerbitzua berrikustea; izan ere, benetan garestia da duen erabiltzaile-kopuru urria kontuan hartuta, eta, zerbitzu horri ibilbideak gehitu ahal zaizkio baserritarrei zerbitzua emateko.
Zerbitzu hori nola planteatzen den hortxe dago gakoa; ez du zertan zentimo bat gehiago kostatu, eskaeraren araberakoa izan liteke, eta herri-ibilbide barrukoa ere bai, hala, herri guztiari zerbitzua emango litzaioke eta kostua baxuagoa izango litzateke.
Jarraitu du esaten bere taldeak ez duela planteatzen proposamen itxi bat; prest daude Andiraorekin batera eta azterketatik ateratzen dena kontuan hartuta zer zerbitzu mota ezarri erabakitzeko, eta, are gehiago, prest

sino que hay también otras cuestiones como la ordenación.
Reitera que a algunos se les llena la boca diciendo que hay que mantener el caserío, pero que luego, el modus vivendi del caserío es muy difícil, y que hay que hacer inversiones para que los baserritarras tenga una modo de vida digno, e inversiones también en el campo del transporte.
Los baserritarrras que no tienen coche, continúa, están en una situación precaria, pues no pueden bajar al pueblo, y los servicios están en el en el pueblo.
Afirma así mismo que el ayuntamiento tiene en esto una responsabilidad, y que su grupo plantea revisar el servicio de taxi-bus, servicio que resulta francamente caro por el número reducido de usuarios, y al que se le puede añadir recorridos para dar servicio a los baserritarras.
Según la forma en que se plantee este servicio, continúa, no tiene porqué costar un céntimo más, pues se podría plantear que el servicio sea a demanda, sea también dentro de circuito urbano, dándose así servicio a todo el pueblo, y siendo el coste más bajo.
Dice más adelante que su grupo no propone una propuesta cerrada; sino que están abiertos a estudiar, junto con Andirao, y según lo que resulte del estudio, decidir qué tipo de servicio establecer, y que incluso también están

daude esperientzia pilotu bat egiteko, sei hilabetekoa adibidez.
Toribio Etxeberriak zioen, “pentsatuz egin, eta eginez pentsatu” eta prest daude proposamen honekin ere horrela egiteko, baserritarren artean aspalditik dagoen premia bati erantzuten baitio.

abiertos a que se haga una experiencia piloto, de por ejemplo, seis meses.
Toribio Etxeberria decía, añade, “hacer pensando, y pensar haciendo” y están abiertos a que así se haga también con esta propuesta, la cual viene a responder a una necesidad que hay, y que viene siendo reclamada desde hace años por el mundo baserritarra.

Amaitzeko esan du beste udalerri batzuetan zerbitzua ematen bada, Eibarko baserritarrak ez direla izango Usurbilgo edo Zornotzakoak baino gutxiago; badagoela zerbitzurako gaitasun finantzarioa, eta zerbitzua merezi dutela, Eibarrek primerako baserritarrak merezi dituen bezala.

Finaliza afirmando que si en otros municipios se da el servicio, entienden que los baseritarras de Eibar no tienen que ser menos que los de Usurbil o Amorebieta, que hay poder financiero para el servicio, y que se merecen el servicio al igual que Eibar se merece tener unos baserritarras de primera.

Aguirre andreak dio proposamenaren alde egingo duela, eta uste duela taxi-bus zerbitzua frogatzen ari den bezain defizitarioa dela; eta ea proposamenarekin zenbakiak beste batzuk izaten hasten diren eta zerbitzua eraginkorragoa.
Horren haritik, bere ustez, analisia da garrantzitsuena, zeren seguru asko ez da irtengo hain zerbitzu defizitario baten zulotik.
Bere ustez, bizitzan aukera berriei egin behar zaie bidea, eta, azkenean irteten denaren arabera, komenigarria izan daiteke proposamena.

Afirma la señora Aguirre que va a apoyar la propuesta y que cree que el servicio de taxi- bus es tan deficitario, como se está demostrando, que a ver si con la propuesta los números empiezan a ser otros y el servicio es más eficaz.

Cree que en este sentido, el análisis es lo más importante porque es probable que no se salga del agujero de un servicio tan deficitario.
Cree que en la vida, concluye, hay que embarcarse en nuevas posibilidades, y según lo que resulte puede ser conveniente la propuesta.

Jarraian, Lamarain andreak hartu du hitza eta hauxe adierazi du: udalak lan bat egin du emakume baserritarrekin eta badakite gabezietako bat dela baserrietara joateko garraio publikoaren falta, eta, horregatik uste du garrantzizkoa dela udalak zerbitzu hori ematea, eta, gainera, ordutegi batekin eskaintzea baina eskaeraren arabera.

Ordezko mozioaren azken paragrafoan esaten da baserriko taxi-busak, nolanahi ere, ez lukeela gainditu behar kaleko taxi-busaren defizit-muga, eta iruditzen zaie horrek asko baldintzatuko lukeela etorkizunean zerbitzua martxan jartzea, kontuan hartu behar delako zerbitzu publiko batzuk defizitarioak izan daitezkeela, eta horrek ez duela esan nahi martxan jarri behar ez direnik.

Interviene a continuación al señora Lamarain, quien afirma que el ayuntamiento ha hecho un trabajo con las mujeres baserritarras y que ya se sabe que una de las necesidades es la falta de transporte público a los caseríos, por lo que cree que es importante que el ayuntamiento ofrezca este servicio, y además, que lo ofrezca con un horario pero según la demanda. Añade que en el último párrafo de la moción alternativa se dice que el taxi-bus en el ámbito rural en todo caso, no debería de superar el umbral del déficit existente en el servicio actual de taxi-bus urbano y que les parece que esto condicionaría la futura puesta en marcha del servicio, pues hay que tener en cuenta que algunos servicios públicos pueden ser deficitarios, y que ello no significa que no haya que ponerlos en marcha.

Ondoren, Alkate jaunak hartu du hitza. Hasi da esaten bere taldeak erretiratu egin behar duela aurkeztu duen mozioa, baina azterlan baten premia nahi dutela jarri mahai gainean; izan ere, EAJ/PNV taldeko mozioaren arabera, badirudi lehenik zerbitzua sortu behar dela eta gero ikusiko dela Andiraorekin nola egin, baina, bere taldearen proposamena, aitzitik, zera da: lehen sektoreko azterketa bat egiten ari denez, ikusi Andiraorekin batera ea zer

A continuación interviene el señor Alcalde, quien comienza diciendo que su grupo va a retirar la moción que ha presentado, pero que sí desean poner encima de la mesa la necesidad de un estudio, pues según la moción del grupo EAJ/PNV parece que hay que crear el servicio y luego se verá con Andirao cómo se hace, mientras que la propuesta de su grupo es la de que ya que se está haciendo un estudio del sector primario ver junto con Andirao las

behar dauden, eta, horien arabera, erantzun bat eman.

Eibarren, ez hain aspaldi, taxi batek jasotzen zituen baserrietako umeak eskolara eramateko, horixe eskatzen baitzen une hartan, eta une honetan zerbitzua oso ordu jakinetan eta zerbitzu zehatzekin eskatzen bada, agian ez da beharrezkoa izango linea berri bat sortzea.

necesidades que hay y, según estas, dar respuesta.

En Eibar, añade, no hace tanto que algún taxi recogía a los niños de los caseríos para llevarlos a la escuela, porque era lo que en aquel momento se demandaba, y si en este momento se demanda el servicio en unas horas muy concretas y unos servicios muy concretos, igual no es necesario crear una línea.

Esaten dutenean taxi-busaren defizit-mugaren hainbatekoa izan behar dela, esan nahi dute taxi-busak hamabi mila euroko defizita baldin badauka, baserriko taxi-bus zerbitzua ere beste hamabi milakoa izan dadila, baina ez dugu uste kopuru horretara iritsiko denik, autobusa behar duten pertsonen masa kritikoa urria delako, baserritar gehienak beren ibilgailuetan ibiltzen dira-eta; baina uste dute, edonola ere, defizit-muga bat ezarri behar dela.

Cuando se refieren a que el umbral del déficit del taxi-bus es otro tanto, prosigue, quieren decir que si el taxi-bus tiene un déficit de doce mil euros, el servicio en el mundo rural sea de otros doce mil, pero entendiendo que no va a ser eso ya que la masa crítica de personas que necesiten traslados es pequeña, pues la inmensa mayoría de los baserritarras se mueven con sus vehículos; pero considerando que en todo caso hay que establecer un umbral de déficit.

Amaitzeko esan du pentsatzen zutela leku berera iristeko ordezko mozioa argiagoa zela, baina azkenean kontua zera dela: Andiraorekin esertzea, emaitzak aztertzeko eta beharrak zein diren ikusteko, eta, hortik abiatuta, premia horiei erantzuten dien zerbitzua ezartzea.

Finaliza afirmando que para llegar al mismo sitio entendían que la moción alternativa era más clara, pero que al final se trata de sentarse con Andirao para analizar los resultados y detectar las necesidades, y a partir de ahí, establecer el servicio que dé respuesta a las necesidades.

Jarraian, atzera ere Mendicute jaunak hartu du hitza. Lehendabizi eskerrak

Interviene de nuevo el señor Mendicute quien en primer lugar agradece al grupo

eman nahi dizkio talde Sozialistari mozioa erretiratzeagatik, eta, hortaz, ulertu duenez, bat egiten du aurkeztutako jatorrizko proposamenarekin, zeinak nahi duena da Mugikortasun Planean jasota datorren helburu eta proposamen bati erantzun, Mugikortasun Planak berak eskatzen duelako zerbitzu hori ezartzea, eta testua hain zuzen Mugikortasun Plan horretan dago jasota.

Aurrerago dio ez duela polemikan aritu nahi alkatearen interbentzioari buruz, baina bai azpimarratu nahi duela gastu-muga baztertzailea izan daitekeela; izan ere, ikusi egin beharko da ea zein den baserri munduko eskaera eta zein kaleko eskaera, ez litzatekeelako bidezko izango kalean berrogei pertsonak erabiltzea eta baserri-munduan ehun pertsonak, eta gastu-muga berdina izatea; hortaz, agian, gastu-muga bidaiari bakoitzeko izan beharko litzateke.

Azkenean, EAJ/PNV taldearen mozioa bozkatu da eta emaitza honekin onartu da:

Baiezko botoak (11): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate

Socialista que reitre su moción y que por tanto entiende que se une a la propuesta original presentada, que lo que trata es de dar cumplimiento a un objetivo y a una propuesta concreta que viene recogida en el Plan de Movilidad, porque es el propio Plan de Movilidad el que está invitando a establecer este servicio, añadiendo que el texto está recogido precisamente de ese Plan de Movilidad.

Dice más adelante que no quisiera polemizar sobre la intervención del señor Alcalde pero que sí desea indicar que la elección del umbral de gasto puede ser discriminatoria, porque habrá que ver cuál es la demanda que hay en el mundo rural y cuál es la demanda urbana ya que sería injusto que en la calle lo utilicen cuarenta personas y en el mundo rural cien, y que el umbral de gasto fuera el mismo; por lo que igual el umbral tendría que ser por viajero.

Finalmente, sometida a votación la moción presentada por el grupo EAJ/PNV, se aprueba con el siguiente resultado:

Votos afirmativos (11): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate

Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Ez dago ezezko botorik (0).

Abstentzioak (9): Alkatea, Albistegui Zamacola, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

9. ATALA: Galderak eta erreguak.

- Errasti jaunarena: galdetu du ea zerbait gertatzen den lanpostuen balorazio-mahaiarekin, protokoloa ezarri baita, baina balorazio eta lanpostu bakoitza aztertzeko orduan, ez dago berririk.

Alkate jaunak erantzun du zuzendaritzei igorri zaiela langile bakoitzak egindako galdetegiak, zuzendaritzek beren adostasun eman ala ez erabakitzeko, baina ez dakiela zer epe duten zuzendaritzek erantzuteko.

- Aguirre andrearean: dio galdera batzuk egin eta erregistratu zituela udalerriko aurrezpen eta efizientzia energetikoari buruz, eta erantzunaren zain dagoela.

Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos negativos (0): ninguno.

Abstenciones (9): Alcalde, Albistegui Zamacola, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga e Iraola Iriondo (PSE-EE).

PUNTO 9º: Ruegos y Preguntas.

- La del señor Errasti preguntando si ocurre algo con la mesa de valoración de puestos, pues se ha adecuado ya el protocolo, pero a la hora de examinar cada valoración y cada puesto, no se sabe nada más.

Responde el señor Alcalde que se ha trasladado a las jefaturas los cuestionarios hechos por cada trabajador para que las jefaturas den su conformidad o no, aunque desconoce el plazo del que disponen las jefaturas para responder.

- La de la señora Aguirre diciendo que está esperando respuesta a las preguntas que hizo y que las registró sobre el ahorro y la eficiencia energética en el municipio.

Alkate jaunak erantzun du galderak igorri direla eragindako arlo edo sailetara eta erantzunen zain daudela, eta horien berri dutenean helaraziko direla.
Aguirre andreak adierazi du apirilerako izatea gustatuko litzaiokeela, hortik aurrera Irabazik proposamen zehatzak egin nahi dituelako.

Responde el señor Alcalde que las preguntas se han repartido a las áreas afectadas y que se está esperando las respuestas, que en cuanto se disponga de ellas se las trasladará.
Indica la señora Aguirre que le gustaría que ello fuera para abril, ya que a partir de ahí Irabazi desea hacer propuestas concretas.

- Lamarain andrearena: adierazi du duela bi aste Foru Aldundiak bidegorriaren aurkezpena egin zuela, eta bere taldea ez zutela gonbidatu, ez Diputazioak, ez gobernu-taldeak.

- La de la señora Lamarain diciendo que hace dos semanas tuvo lugar por parte de la Diputación Foral la presentación del bidegorri, presentación a la que su grupo no fue invitado, ni por la Diputación, ni por el equipo de gobierno.

Jarraitu du esaten Foru Aldundiko aurrekontuetan, eta 2018 eta 2019 urteetarako, hiru milioi eta erdi euro daudela aurreikusita, baina aurkezpenean 5,1 milioiz hitz egin zela; alde horren berri jakin nahi dute, eta baita ere hiri barruko bidegorriaren inguruko ekitaldian egin ziren galderen erantzunen berri.

Sigue afirmando que ya saben que en los presupuestos de la Diputación, y para los años 2018 y 2019 están contemplados tres millones y medio de euros, pero que en la presentación se habló de 5,1 millones; por lo que desean conocer el motivo de esta diferencia, así como las respuestas del señor Alcalde a las preguntas que saben se hicieron en el acto sobre el bidegorri urbano.

Alkate jaunak adierazi du Diputazioa izan zela Eibarren prentsaurreko bat egin nahi izan zuena eta horretarako gela bat eskatu zuen; ekitaldira bera gonbidatu zuten eta esan zioten

Afirma el señor Alcalde que fue la Diputación la que quiso realizar una rueda de prensa en Eibar y solicitó al efecto una sala, que le invitaron al acto a él y le dijeron que también podría

Esperientzia Eskolako taldea ere gonbida lezakeela, bidegorriaren defentsan proiektu bat egin zuelako.
Horrez gain, jakinarazi zioten ezen, apirilaren 7an, Itzulia Eibarren hasi eta Arraten amaitzen dela aprobetxatuz, karpa bat jarri behar zutela prestatuta zuten fotomuntaketa egiteko.

Jarraitu du esaten herri barruko bidegorriari buruz galdetu zela eta berak dauden bi irtenbideak eman zituela eta baita bere iritzia ere; alegia, bide-trazadura batzuk daudela herri barrukoak, baina aukera ezinhobea dela trenbide gaineko pasealekua aprobetxatzea, eta lan egin behar dela herriaren ekialdean trenbidearen estaldura planifikatuta egoteko eta errealitate izateko ahalik eta lasterren; eta ondorio horretarako, lan egiten hasi direla eta bilera bat izan dutela Eusko Jaurlaritzarekin.

Berak uste du herriak izan dezakeen bidegorririk onena izango dela trenbidea estaliz egiten dena, eta lotune batzuk dituena erdigunean; eta beste gauza bat izango dela udalak erabakitzen duena.

Amaitzeko, esan du finantzen arloari dagokionez, Diputazioak badio 5,1 euro direla berak sinistu egiten duela; eta bermatu diotela egingo dutela, zeren eta berak bermatu baitu "sekretutxo" bat dutela, ezin duena esan.

invitar al grupo de la Escuela de la Experiencia que había hecho un proyecto de defensa del bidegorri.
Añade que le informaron que aprovechando que el próximo día 7 de abril la Itzulia empieza en Eibar y acaba en Arrate, van a colocar una carpa para hacer la presentación del fotomontaje que tienen preparado.
Sigue afirmando que en efecto, se preguntó sobre el bidegorri urbano y que él dio las dos alternativas que hay y su opinión de que efectivamente hay unos trazados del bidegorri por el casco urbano, pero que hay una gran oportunidad de aprovechar el paseo sobre las vías del ferrocarril y que hay que trabajar para conseguir que la cobertura del ferrocarril en la zona este de la ciudad pueda estar planificada y ser una realidad más pronto que tarde, y que al efecto, ya se ha empezado a trabajar y se ha mantenido una reunión con el Gobierno Vasco.
Él cree que el mejor bidegorri, prosigue, que pueda tener la ciudad, será el que va apoyado sobre la cobertura de las vías de tren, con pequeños enlaces en el casco urbano, y otra cosa será lo que el ayuntamiento decida.
Finaliza afirmando que en cuanto al aspecto financiero, si la Diputación dice que son 5,1 euros, él se lo cree; y que le han garantizado que lo van a hacer porque él ha garantizado que tienen un “secretito”, que no lo puede decir.

Lamarain andreak adierazi du hori esan duela aurrekontuan aurreikusitakoa 3,5 milioi zirelako, eta alkateak erantzun du, itxura denez, geldikinen bat dagoela eta hori gehituko dela.

Indica la señora Lamarain que lo ha dicho porque lo presupuestado son 3,5, respondiendo el señor Alcalde que al parecer hay algún remante que se va a incorporar.

- Aguirre andrearena: adierazi du Eibar-Ermua arteko erreka ondoko pasealekuaz hitz egin izan dela, oso proiektu ederra Ego ibaiaren ondotik, baina hari buruz ez dela ezer entzuten. Gaineratu du egiteko daudela Ardantza-Aldatze, Jardiñeta-Estaziño edo Sakuneko ingurua, lehen aipatu den Alfako gaiarekin zerikusia izango duena, eta batez ere ahalegindu behar dela kosta lain kosta Eibar oinezkoentzako herri bat izatea eta ardatza pertsona izatea; halaber, erdiguneaz haruntzagoko bilguneak egon behar dira, aprobetxatzeko modukoak, Eibar inguruko espazio batzuetan.

- La de la señora Aguirre diciendo que se ha hablado del paseo fluvial de la zona Eibar -Ermua, junto al río Ego que ha quedado como un proyecto muy hermoso, pero del que no se oye nada. Añade que también están pendientes los paseos Ardantza – Aldatze, Jardiñeta –Estaziño, o el área recreativa del Sakun, que tendrá que ver con el tema comentado de Alfa y fundamentalmente el buscar por todos los medios que Eibar sea una ciudad para los peatones y que el centro sea la persona, facilitando los encuentros más allá de lo que es el centro, en unos espacios alrededor de Eibar, que se pueden aprovechar.

- Mendicute jaunarena: eskatu du udal gobernuak aurkez dezala Trafiko Batzordean trafikoa lasaitzeko Plan bat. Mugikortasun Planean datorren proposamenetako bat da eta horren arabera, trafikoak herri osoan 30 km/h-ko abiadura-muga duenean, bizikletarekiko bateragarritasuna ona da

- La del señor Mendicute solicitando que el gobierno municipal presente en la Comisión de Tráfico un Plan de tranquilización del tráfico, que es una de las propuestas que viene en el Plan de Movilidad, y que indica que cuando el tráfico en toda la ciudad tiene una limitación de 30 kms/hora la

eta bizikleta-erabiltzaileentzako heriotza-arriskua, ia zerora murrizten da.

convivencia con la bicicleta es óptima y que el riesgo de muerte para los usuarios de la bicicleta, se reduce prácticamente a cero.

Lasaitasun Plan bat eginda, jarraitu du, benetan garrantzia duena herri barruko bidegorriak dira, baina bizikletaren eta autoaren arteko elkarbizitza ona da muga 30 km/h-koa denean, eta aukera ematen duenean espazioa erabiltzeko ez bidegorrietarako baizik eta espaloietarako, hori ere beharrezkoa delako.

Haciendo un Plan de Tranquilización, continúa, lo que realmente importa son los bidegorris interurbanos, pero la convivencia entre la bicicleta y el coche es buena cuando la limitación es de 30kms/hora, y da la posibilidad de destinar el espacio urbano, no al bidegorri; sino a aceras, que es una cuestión que también es necesaria.

Gaineratu du eskatzen diola Trafiko Batzordeko Presidenteari egin ditzala behar diren gestioak Mugikortasun Plana aurkeztua eta aztertua izan dadin, eta eskaera hori agintaldi-hasieratik ari direla egiten, eta duela hiru urte aurkeztu zela Hirigintza Batzordean, baina oraindik ez dela eraman Trafiko Batzordera.

Añade que por tanto solicita al Presidente de la Comisión de Tráfico que haga las gestiones necesarias para que el Plan de Movilidad sea presentado y estudiado, demanda que viene realizándose por su grupo desde el principio del mandato, y que se presentó hace casi tres años en la Comisión de Urbanismo, pero que todavía no se ha llevado a la Comisión de Tráfico.

Jarraitu du esanez bere taldeak proposamenak egiten dituela Mugikortasun eta Plan Estrategikotik eratorritako mozio edo zuzenketekin, eta gero zailtasunak dituztela ez dutelako babes politikorik aurrera ateratzeko, eta, seguru asko, dokumentu horiek batzordeetan aztertuko balira, errazago litzateke lana aurrera ateratzea eta oinarri batzuetan ados jartzea, herriari eragiten dioten etorkizuneko erabakiak hartzean.

Sigue afirmando que su grupo se lleva la sorpresa de que hacen propuestas mediante mociones o enmiendas al presupuesto que devienen del Plan de Movilidad y del Plan Estratégico y que luego, tienen dificultad de apoyo político para sacarlas adelante, y que posiblemente si esos documentos se estudiasen en las comisiones, sería más fácil sacar el trabajo adelante y ponerse de acuerdo en unas bases a la

hora de tomar decisiones que afectan al futuro de la ciudad.

Alkate jaunak adierazi du emana dagoela dagoeneko agindua udaltzaingoari azterketa bat egin dezan “30 km/h-ko hiria" egiteak zer dakarren, eta zer prozedurari ekin behar zaion; eta proposamena batzordera eramango dela lehenbailehen.

Responde el señor Alcalde que ya está dada la instrucción a la policía municipal para que haga un estudio sobre lo que supone hacer “ciudad 30”, y qué procedimiento hay que seguir; y que la propuesta se llevará a la comisión cuanto antes.

Eta gainerantzeko gairik ez dagoenez, eta gaueko hamar eta erdiak izanik, Alkate jaunak bilerari amaiera eman dio; horri guztiari, nik, Idazkari Orokorrak fede ematen diot.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veintidós horas treinta minutos, el Sr. Alcalde levanta la Sesión, de todo lo cual yo, la Secretaria General, doy fe.